

LONJAKIDETZA

GAZTE-LONJAK ERABILTZEKO GIDA

GAZTE-LONJAK ERABILTZEKO GIDA




**LAUDIO
UDALA**
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

Sarrera

Laudioko Udalak udalerriko gazte-lonjen erabilera optimizatzearen aldeko apustua egin du. **Lonjakidetzaren** helburua da bizilagunen eta lonjak erabiltzen dituzten gazteen arteko elkarbizitza ona izan dadin lortzea eta gutxieneko segurtasun-baldintzak ezartzea. Baldintza horiek gazte-lonjak erabiltzeko gida honetan jaso ditugu.

Programa hau elkarbizitzaren inguruko kontsultaren bat egin edo laguntza eskatu nahi duen edonorentzako da: bizilagunak, jabeak, lonjen erabiltzaileak eta lonjaren bat errentan hartu nahi duten gazteak.



Zerbitzuaren ordutegia

- Asteleheneretik ostiralera, 9:30etik 17:30era
- Uztailean eta abuztuan, asteleheneretik ostiralera, 9:00etatik 15:00etara.
- Telefono-zenbakia: Aina Gomez - 94 412 66 58 / 654 17 65 42
- Posta elektronikoko helbidea: gaztelonjak@audio.eus

Minimoak eta gomendioak

01

Azpiegitura

- Hauek dira gutxienez bete beharreko baldintzak:
 - ✓ Iturriko ura (kontratuarekin eta partzuergoaren ordainagiriarekin egiaztatua); gutxienez iturri bat.
 - ✓ Argia: instalazio elektriko baimendua (kontratuarekin eta argindar-konpainiaren ordainagiriarekin egiaztatua).
 - ✓ Larrialdietako argiak.
 - ✓ Bainugela (konketa eta komuna).
 - ✓ Su-itzalgailea, indarrean dagoen legeriako baldintzak betetzen dituen (mantentze-kontratuak indarrean egon behar du).
- Sukaldea ezin da erabili. Sukalondoa bakarrik jar daiteke: hozkailua, sukalde-gainekoa, harraska eta mikrouhin-labea.
- Lokalaren garaierak gutxienez 250 cm izan behar du.
- Lokalek larrialdi- eta ebakuazio-plan bat eduki behar dute eta lokalean ongi ikusteko moduan jarri behar da.

02

Edukiera

Lokalaren edukiera bi metro karratuko azalera erabilgarriko pertsona batekoa izango da. Betiere, bizitegi-lurzoru hiritarrean dauden gazteentzako lokalen edukierak ezin du 25 lagun baino gehiagokoa izan, eta hiri-lurzoru industrialean daudenen edukierak gehienez 50 lagunekoa izan behar du.

03

Zarata kontrolatzea

- Lonjako jarduerak lonja barruan egin behar dira.
- Hosgabatu nahi izanez gero, profesionalengana jo behar da.
- Ate gidaridunak edo pertsianak edukiz gero, etengabe irekitzen eta ixten aritzea eragotzi behar da.
- Lokalaren kanpoaldean moto, kotxe eta abarren zarata pilatzea eragotzi behar da.
- Ez da zarata gogaikarririk sortu behar. Ez dira gaingiditu behar zarata eta bibrazioen ordenantzan ezarritako zarata- eta bibrazio-maila maximoak.
- Gaueko 22:00etatik goizeko 9:00etara lokaleko ate eta leihoak itxita egon behar dute.

04

Higienea

- Ez da zaborrik pilatu behar eta zaborra birziklatzen saiatu behar da.
- Kristalak eta objektu zorrotzak berehala garbitu behar dira.
- Lonja barruko airearen kalitateak ona izan behar du.
- Lonjaren kanpoaldeak ere egoera onean egon behar du.

05

Animaliak

- Lokalean animaliek ezin dute inola ere bakarrik egon.

06

Erantzukizun zibileko aseguru

- Erantzukizun zibileko aseguru kontratatu behar da.
- Lonja guztiek botika-kaxa eduki behar dute.

07


Berokuntza-sistemak

Berogailuak: ezin da errekontzako berogailurik erabili (erregai solido, likido edo gaseosoak dituztenak).

08

Sarbideak

- Lokalaren sarrera nagusiak kanpoaldean egon behar du (espazio publikotik pribaturara), inoiz ez atari, soto edo garaje batean.
- Lokalera sartzeko eta irteteko atearik gutxienez 80 cm zabal izan behar du. Ez du arkitektura-oztoporik eduki behar. Kanpora irteteko atearik gertu irekitzeko modukoa izan behar du; ezin dira oinezkoentzako aterik gabeko garajeetako atearik erabili, ezta ate gisa erabiltzen diren pertsianak ere.




Baldintza orokorrak

01

Kontratua sinatzea

- Kontratua sinatu behar bada, sinatzaileek adindunak izan behar dute. Adingabea izanez gero, haren ama, aita edo legezko tutoreak kontratuaren berme-emaila gisa sinatu behar du.
- Bitartekotza Zerbitzuari lonja erabiliko duten gazteen zerrenda eman behar zaio.
- Halaber, lonjaren jabeak bere datuak eman behar dizkio Bitartekotza Zerbitzuari.






02

Programan izena ematea

Lonjakidetza programaren helburua da Lau-dioko gazte-lonjetako baldintzak, segurtasuna eta elkarbizitza hobetzea. Horretarako, lonjen jabeen, lonja erabiltzen duten gazteen eta Lau-dioko Udalean arlo horretan eskumena duten sailen arteko komunikazio- eta erabilera-esparruak ezarri ditugu.

- Bitartekotza Zerbitzuari lonjako erabiltzaileen zerrenda eman behar zaio, datu hauek jarrita: izen-abizenak, NAN eta harremanetarako telefono-zenbakia. Bitartekotza Zerbitzuarekin harremanetan nor arituko den adierazi behar da.
- Jabeen erkidegoari programan parte hartuko dutela jakinaraziko zaio.
- Gazteek programaren agirian jasotako baldintzak onartzen dituzte eta beteko dituztela hitzematzen dute.



Bitartekotza Zerbitzuak informazio hau jasotzen duen fitxa bat egingo du:

- Taldekide guztien izen-abizenak, NAN eta harremanetarako telefonoa.
- Lokalaren fitxa (planoa, azalera, kokagunea...).
- Lokalaren jabearen izen-abizenak, NAN eta harremanetarako telefono-zenbakia.
- Erreferentziako bizilaguna.
- Adingabeei dagokienez, aitaren, amaren edo legezko tutorearen baimena.
- Alokairu-kontratuaren edo lagapen-idazkiaren kopia.
- Instalazio elektrikoa ongi dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Su-itzalgailua ongi dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren eta dagokion ordainagiariaren kopia.
- Taldeak ezarritako erabilera-arauen zerrenda.

Emandako datuak aldatzen badira edo lokala uzten badute, gazteek horren berri eman behar dute.

**ՀԱՅԳԻՔԻ ԵՏԻՉ
ԼՈՆԴՈՆԻՔԻ ՄՈՒԴ**

